



**2018KO AZAROAREN 9KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko azaroaren bederatzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko urriaren 19an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 100 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMASEI MILA LAUREHUN ETA HOGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (96.429,55 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- 19 H.J.A. -LARREATEGI-KO LURSAIL BESTERENTZEA.-**

Lazkaoko udalaren tokiko gobernu batzarrak, 2018ko ekainaren 29an egindako bilkuran hartutako akordioaren bidez, 19 H.J.A. -Larreategi-ko A.30.19.1 eta A.30.19.2 lursailak lehiaketa bidez besterentzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki zuen.

Lizitazioaren iragarkia 2018ko irailaren 5ean argitaratu zen kontratatzailearen profilean eta proposamenak aurkezteko finkatutako epean, proposamen bakarra aurkeztu zen, Loiola Gestión Inmobiliaria S.L.k aurkeztutakoa.

Loiola Gestión Inmobiliaria S.L.k A.30.19.2 lursaila erosteko eskaintza aurkeztu zuen eta aurkeztutako proposamena onartua izan zen.

Loiola Gestión Inmobiliaria S.L.ri esleipena egin ahal izateko aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkez zezan errekerimendua egin zitzaion eta honek eskatutakoak aurkeztu ditu.

Hau guztia honela izanda, eta gaia Ogasun batzorde informatzailean informatua izan ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak hartzen ditu:



- 1.- 19 H.J.A. -Larreategi-ko A.30.19.2 lursaila besterentzeko esleipena Loiola Gestión Inmobiliaria S.L.ri egitea. Esleipenaren prezioa EHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA ETA BERROGEITA HAMAR EURO (130.050 €). Esleipendunak dagokion BEZ ordaindu beharko du baita ere, hau da, HOGEITA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA HAMAR EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (27.310,50 €).
- 2.- Alkateari ahalmena ematea, udalaren izenean, akordio honekin lotutako eta berezkoak dituen gainontzeko jarduketa guztiak behar bezala burutzeko egin beharrekoak egin ditzan.
- 3.- 19 H.J.A. -Larreategi-ko A.30.19.1 lursaila besterentzeko lehiaketa hutsik gelditu dela aitortzea.

#### IV.- SAN BENITO IKASTOLAREKIN HITZARMENA OBRAK EGITEKO .-

San Benito ikastolak bere beharrei aurre egiteko, hiru gela egokitu ditu. Aldi berean, gela horietara iristeko kanpoaldean egin beharreko lanak, eta baita ere, kantxako zorua hobetu, kantxen arteko irisgarritasuna bermatu, kantxan euria ez sartzeko itxitura, eta azpiegiturak eta argiteria berritzeko lanak ordaindu ditu. Aipatu lan guzti hauek, 547.730,41 eurotako kostua izan dute.

Lan hauen kostua finantzatzen laguntzeko, San Benito Ikastolarekin lankidetzaz hitzarmena izenpetzea planteatzen da, kontuan izanda gaur egun Lazkaon hezkuntza arautua eskaintzen duen ikastetxe bakarra dela.

Planteatzen den hitzarmen honen baitan, Lazkaoko udalak 192.000€ arteko diru laguntza emango lioke San Benito Ikastolari, bertan finkatzen diren klausulen arabera.

Gaia aztertu ondoren, eta gaia ogasun batzorde informatzailean informatua izan delarik, tokiko gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioan hartzen ditu:

- 1.- Hainbat obra egitearen inguruan, bere espedientean dagoen San Benito Ikastola eta udal honen arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea.
- 2.- Alkatea ahalmentzea hitzarmen hau udalaren izenean izenpetzeko.

#### V.- BASHERRI EGUNEKO DIRU LAGUNTZAK .-

2018ko San Migel jaien barruan, irailaren 23an, Basherrri eguneko antolaketan baseritarrek, animali, barazki eta jaki postuak jarriz, izandako parte hartzeak diruz laguntzeko, landa arloko zinegotziak egindako proposamena ikusi ondoren, tokiko gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, guztira 5.504,35 €ko diru laguntzak onartzea erabakitzen du. Diru laguntza hauen banaketaren xehetasuna bere espedientean jasotzen da.

#### VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH bildu) bideetako abiadura azterketen emaitzen inguruko informazioa eskatzen du eta alkateak eskatutako informazioa ematen dio.



LAZKAOKO  
UDALA

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hogeita zazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

